

# Prentsa oharra Nota de prensa



## ETXEBIZITZA TURISTIKOAK EKOJASANGARRIAK IZATEA SUSTATZEN DU DONOSTIAK

- Aparturek ia 160 tona hondakin organiko birziklatuko ditu eta erabilera bakarreko plastikoak kenduko ditu etxebizitzetatik.

Donostiako Udaleko Ekologiako eta Turismo Sostengagarriko zinegotzitzek, Aparture Euskadiko Etxebizitza Turistikoaren Elkartearekin lankidetzan, proiektu bat jarri dute abian, etxebizitza turistikoetan hondakin organikoen % 100 birziklatzeko eta erabilera bakarreko plastikoen % 100 kentzeko.

Marisol Garmendia Ekologiako zinegotziak honela adierazi du: "Aspalditik ari gara gizakiak egunerokoan egiten duen kaltea arintzeko programak garatzen. Areago sakonduko dugu berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketan, hondakinen murrizketan, Zero Plastik eta antzeko kanpainen, erabilera bakarreko plastikoen neurritz kanpoko erabilera saihesteko. Eta, orain, Aparturaren eskutik, etxebizitza turistikoetan sartuko gara; izan ere, etxebizitza turistikoak asko ugaritu dira, eta etxebizitza horien erabiltzaileen kontzientzia ekologikoa gero eta handiagoa da.

Hain zuzen ere, Zero Plastik kanpainari esker, diagnostiko bat egin zen sektorean, hiriko etxebizitza turistikoetan sortutako hondakinak murrizteko eta hobetzeko, bai eta ingurumenarekin loturiko beste arlo batzuetan jardunbide egokiak zabaltzeko ere.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

Garmendiak adierazi duenez, Donostiako etxebizitza eta apartamentu turistikoek giltzatako bat izango dute. Giltzatako horretan, etxebizitzako giltzak ez ezik, txip bat ere etorriko da, edukiontzi marroia eta materia organikoa biltzeko eta konpostatzeko edukiontzia erabili ahal izateko. Estatuan etxebizitza eta apartamentu turistiko %100 ekojasangarriak dituen lehen hiria izango gara, eta erabilera bakarreko plastikoak kentzea ere ekarriko du horrek”.

Apartureko presidente Asier Peredak azpimarratu duenez, “Donostiako Udalaren eta Aparturaren arteko lankidetzari esker, erabilera bakarreko 320.000 plastikozko ontzi baino gehiago kenduko dira eta ia 160 tona hondakin organiko birziklatuko dira, konpostatzeko”.

Etxebizitza turistikoaren giltzatakoan egongo den txip-txartel horretaz gain, edukiontzi bakoitzean zer hondakin bota behar den azaltzen duten eranskailuak emango zaizkie jabeei.



Zero Plastik programak beste ekimen batzuk ere biltzen ditu, hala nola ingurumenarekin loturiko beste arlo batzuetan jardunbide egokiak zabaltzea.

Material horiek esteka hauetatik deskarga daitezke:

- Etxebizitza eta apartamentu turistikoetako [jabeentzako jardunbide egokien bila](#)
- Etxebizitza eta apartamentu turistikoetako [enpresa kudeatzaileentzako jardunbide egokien bila](#)
- [Bezeroei zuzendutako jardunbide egokiak.](#) [ingurumena@donostia.eus](mailto:ingurumena@donostia.eus) helbidera idatziz eska daiteke inprimakia.

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

### Simple tips for a sustainable stay

Pequeños gestos para cuidar el medio ambiente  
Conseils simples à adopter pour un tourisme durable  
Ingurumena zaintzeko keinu txikiak

#### Make CLIC! Haz CLIC! Faites CLIC! Egin KLIK!

- ✓ **Please make responsible use of both lights, heating and air conditioning.**
- ✓ **Haz un uso responsable de las luces y utiliza razonablemente la calefacción o el aire acondicionado.**
- ✓ **Veillez faire un usage responsable de l'éclairage, du chauffage ou de la climatisation.**
- ✓ **Mesedez, argiak, berogailua eta aire egokitua zentzuz eta arduraz erabili.**

7 ENERGÍA ASEQUIBLE  
Y NO CONTAMINANTE



#### Water is LIFE! ¡El agua es VIDA! L'eau est LA VIE! Ura BIZITZA da!

- ✓ **The quality of tap water in San Sebastián is excellent. Please don't waste water.**
- ✓ **La calidad del agua del grifo de San Sebastián es excelente. Por favor, no desperdices agua.**
- ✓ **La qualité de l'eau du robinet à San Sebastián est excellente. Veuillez ne pas gaspiller l'eau.**
- ✓ **Donostiako iturriko uraren kalitatea bikaina da. Mesedez, ez alferrik galdu ura.**

6 AGUA LIMPIA  
Y SANEAMIENTO

